7.- Instalazioen ziurtagiria: deskribatutako hondakin metalikoak jasotzeko eta balorizatzeko instalazio egokiak dituela egiaztatzen duen agiria.	**7.-** Certificado de Instalaciones: Acreditación de disponer de instalaciones adecuadas para la recepción y valorización de los residuos metálicos descritos.
8.- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak garraiatzeko baimena.	**8.-** Autorización para el transporte de Residuos peligrosos y no peligrosos.
9.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, kontratazio-organoari A. gutun-azalean jasotako aitorpenean zuzenean egiaztatzeko baimena eman zaionean izan ezik.	**9.-** La documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social salvo que se hubiera autorizado al órgano de contratación para obtener de forma directa su acreditación en la declaración incluida en el sobre A.
Udalak udal diruzaintzan bertan dauden datuen bidez egiaztatuko du udal horrekiko zerga-betebeharrak betetzen direla.	El Ayuntamiento comprobara mediante los datos obrantes en la propia Tesorería Municipal el cumplimiento de las obligaciones tributarias con este Ayuntamiento.
10.- Kontratuaren esleipenaren % 5eko behin betiko bermea eratu izana justifikatzen duten agiriak.	**10.-** La documentación justificativa de haber constituido la garantía definitiva por el importe del 5% de adjudicación del contrato.
13. KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA	**13. ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN**
Lizitatzaileei kontratua esleitzeko erabaki arrazoituaren jakinarazpena bidali behar zaie	La resolución motivada de adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser

eta erabakia kontratatzailearen profilean argitaratu behar da, hamabost egunen buruan.	publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.
Jakinarazpenak eta publizitateak interesdunek kontratua esleitzeko erabakiaren kontra helegite oinarriduna jarri ahal izateko adina informazio eduki behar dute, gutxienez honako hau:	La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y entre ella en todo caso deberá figurar la siguiente:
- Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, adierazi behar da haien eskaintzak zergatik ez diren onartu eta zergatik erabaki den ez direla baliokideak edo haien zerbitzuak ez datozela bat etekinen betebeharrekin edo betekizun funtzionalekin. Horrez gain, lizitatzaileek (esleipendunak barne) zer balorazio izan dituzten azaldu behar da, balorazioak banakatuta.	- Con respecto a los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, los motivos por los que no se haya admitido su oferta, los motivos de la decisión de no equivalencia o de la decisión de que los servicios no se ajustan a los requisitos de rendimiento o a las exigencias funcionales; y un desglose de las valoraciones asignadas a los distintos licitadores, incluyendo al adjudicatario.
- Betiere, adierazi behar da, batetik, esleipendunaren izena; eta bestetik, zergatik aukeratu den haren eskaintza onartutako guztien artean, hau da, haren proposamenak zer bereizgarri eta abantaila dituen.	- En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia respecto de las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas.
Jakinarazpena baliabide elektronikoen bidez egingo da, 2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.	La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017.
Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da; agiri horrek lizitazioaren baldintzak zehatz-mehatz bete behar ditu eta nahikoa izango da edozein erregistro publikora sartzeko. Dena den, kontratistak kontratua eskritura publiko izatea eska dezake eta gastuak haren kontura izango dira. Kontratua formalizatzeko agirian ezin da inola ere jaso esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.	El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.
Kontratua gehienez hamabost egun baliodunen buruan formalizatu behar da, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.	La formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

Esleipendunari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ez bada epe horretan formalizatzen, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ gabe), zigor gisa. Zenbateko hori behin betiko bermetik hartuko da, bermea eratu bada. Gainera, kontratatzeko debekutzat har daiteke.	Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de su consideración como causa de prohibición para contratar.
Hori gertatuz gero, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio (eskaintzak sailkatutako ordenan), hark, lehen aipaturiko epean, aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren.	En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados.
Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozteko modukoak badira, kontratistari kalte-ordaina emango zaio, atzerapenak sortutako kalte-galerengatik.	Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.
Kontratua formalizatzeko agiria eta kontratua bera kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gehienez hamabost egunen buruan, kontratua kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean burututako egunetik kontatzen hasita.	La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del órgano de contratación.
Kontratua formalizatu denaren berri emateko iragarkiak 2017ko SPKLko III. eranskinean jasotako informazioa edukiko du.	El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP de 2017.
14. KONTRATUA FORMALIZATU DELA IRAGARTZEA	**14. ANUNCIO DE FORMALIZACIÓN.**
Kontratua formalizatzeko agiria eta kontratua bera kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gehienez hamabost egunen buruan, kontratua burututako egunetik kontatzen hasita.	La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante del órgano de contratación en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato.
Kontratua formalizatu denaren berri emateko iragarkiak 2017ko SPKLko III. eranskinean jasotako informazioa edukiko du.	El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP de 2017.

Egoki iritziz gero, kontratuari buruzko datu batzuk ez argitaratzea erabaki daiteke eta hori espedientean arrazoitu behar da. Ez argitaratzeko arrazoiak izan daitezke, lehenik, informazio hori ezagutzera emateak arau bat betetzea eragoztea; bigarrenik, informazio hori argitaratzea interes publikoaren kontrakoa izatea; hirugarrenik, argitaratuz gero enpresa publiko edo pribatuen legezko interes komertzialak edo haien arteko lehia zintzoa kaltetzea; laugarrenik, kontratua isilpekoa edo ezkutukoa izatea edo egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak hartu behar izatea, indarrean dagoen legeriari jarraikiz; eta azkenik, estatuaren funtsezko segurtasun-interesak babestu behar izatea, 2017ko SPKLko 19.artikuluko 2.ataleko c) letran zehaztutakoaren arabera. Horrelakoetan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipaturiko Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluari txostena egitea eskatu behar zaio, 2017ko SPKLko 154. artikuluari jarraikiz.	Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017. En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP de 2017.
KONTRATUA GAUZATZEA **15. KONTRATUA GAUZATZEA** Kontratua gauzatzeko garaian, arriskuak bere kontura hartuko ditu kontratistak. Kontratua gauzatzeko kontuan hartu behar dira agiri honetako klausulak eta, hala badagokie, espedienteko zehazpen teknikoak. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu eta eskumen horiek baliatuko ditu idatziz zein ahoz. Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintza edo ez-egiteen ondorioz kontratua behar bezala ez gauzatzeko arriskurik badago, administrazioak beharrezkotzat jotako neurriak hartzeko eska dezake, lanak ondo egitea lortzeko edo lanak ondo egiten berriz hasteko. Kontratua ez dago prezioak berrikustearen mende.	**EJECUCIÓN DEL CONTRATO** **15. EJECUCIÓN DEL CONTRATO** La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista. El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. El contrato no está sujeto a la revisión de precios.

16. BETEKIZUNAK: ZERGA-SISTEMA, GENEROAREKIKO BERDINTASUNA, INGURUMENA BABESTEA, ENPLEGUA, LAN-BALDINTZAK ETA DESGAITASUNAK DITUEN PERTSONA-PORTZENTAJE JAKIN BAT KONTRATATZEA Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren, desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneko arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez; hori, laneko arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura arautzeko eta garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera. Agiri honetako 2. eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz adierazi behar da eskaintzan kontuan hartu direla, batetik, zerga-sistemaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi 2017ko SPKLko 149. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar ez denik; artikulu hori normalak ez diren edo neurrigabeak diren balioak dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruzkoa da.	**16. OBLIGACIONES RELATIVAS A LA FISCALIDAD, IGUALDAD DE GENERO, PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE, EMPLEO Y CONDICIONES LABORALES Y DE CONTRATAR A UN PORCENTAJE ESPECÍFICO DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD.** El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de minusválidos y de prevención de riesgos laborales, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y sus normas reglamentarias y de desarrollo. En el modelo de proposición económica que figura como Anexo 2 al presente pliego se hará manifestación expresa que se han tenido en cuenta en sus ofertas las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, , sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP de 2017sobre verificación de las ofertas que incluyan valores anormales o desproporcionados.
17. KONTRATISTARI ESKATZEKO MODUKO BETEKIZUN, GASTU ETA ZERGAK Kontratistaren kontura izango dira, batetik, kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta eskritura publikoa izatea erabakitzen badu; eta bestetik, toki-erakundeari ez dagozkion eta kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren lizentzia eta baimenak. Halaber, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastuak ordainduko ditu: gastu orokor eta finantzarioak, aseguruak, garraioa	**17. OBLIGACIONES, GASTOS E IMPUESTOS EXIGIBLES AL CONTRATISTA** Son de cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública, así como de cuantas licencias, autorizaciones y permisos que no dependan de esta Entidad Local y que procedan en orden a ejecutar correctamente el objeto del contrato. Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los

eta joan-etorriak, materiala, instalazioak, haren ardurapean dauden langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak, tasak eta zergak, BEZ, jarduerari dagokion zerga eta kontratuak irauten duen bitartean hura gauzatzeko gainerako gastuak. Gastu horiek guztiak, beraz, ezin dira partida bereizi gisa egotzi. Kontratistak isilpean gordeko du kontratua gauzatzen duenean eskuratzen duen informazio konfidentzial guztia.	generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo, sin que por tanto puedan ser éstos repercutidos como partida independiente. El contratista deberá respetar el carácter confidencial de la información a que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato.
18. GAUZATZE-BALDINTZA SOZIAL BEREZIAK (2017KO SPKLKO 202. ARTIKULUA) - Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea. - Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari. - Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.	**18. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN (ART. 202 LCSP de 2017) DE TIPO SOCIAL.** - Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar. - Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración. - Favorecer la formación en el lugar de trabajo.
19. KLAUSULA. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BESTERI ERAGINDAKO KALTEETAN Kontratista izango da kontratua gauzatzerakoan egiten diren jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, SPKLko 196. artikuluan zehaztu bezala. Horretarako kontratistak erantzukizun zibileko poliza kontzeratuko du 300.000€koa.	**19. RESPONSABILIDAD DE LA CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**. La empresa contratada será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP. A tal efecto, el contratista concertará una póliza de responsabilidad civil por importe de 300.000€.
20. BERMEA JASOTZEA ETA BERMEAREN EPEA Kontratuaren xedea gauzatzeaz amaitu eta gehienez hamabost egunera bermea jasotzeko ekitaldi formala egingo da; ekitaldi horretan	**20. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA** En el plazo máximo de 15 días desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a

zerbitzuaren behin betiko txostena aurkeztuko da. Bermealdia amaitu ondoren, administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, kontratistak erantzule izateari utziko dio eta eratutako bermea bueltatuko zaio edo kauzio-abal edo -asegurua indargabetuko da.	cabo mediante la entrega del informe definitivo del servicio. Transcurrido dicho plazo sin objeciones por parte de la Administración quedará extinguida la responsabilidad del contratista y se procederá a la devolución de la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución.
21.- KONTRATUAREN XEDEA IKUSKATZEKO ARDURADUNA Kontratuaren jarraipenaz eta ohiko betearazpenaz arduratzen den unitatea alde batera utzita, Obra eta Zerbitzuetako burua izango da kontratuaren arduraduna. Haren ardura izango da kontratua betetzen dela gainbegiratzea, eta hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, kontratazio-organoak esleitzen dizkion ahalmenen eremuaren barruan.	**21.- RESPONSABLE SUPERVISOR DEL OBJETO DEL CONTRATO** Con independencia de la unidad encargada del seguimiento y ejecución ordinaria del contrato, la persona responsable del contrato, a la que le corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de facultades que le atribuya el órgano de contratación, será el jefe de Obras y Servicios.
22.- ORDAINTZEKO MODUA Kontratua sinatu ondoren, eta udal gordailuan dauden materialak kendu aurretik, kontratistak berak aukeratutako erakunde laguntzaileari ordaindu beharko dio kontratuaren %70 zenbatekoa, eta, ondoren, udalak dagokion faktura egingo du. Gainerako zenbatekoa kontratistak ordainduko du, udal-biltegietatik datozen hondakin metalikoen azken pisaketaren araberako likidazioa egin ondoren. Ordainketa hori, nolanahi ere, kontratua gauzatzeko epea amaitu aurretik egin beharko da.	**22.- FORMA DE PAGO** Tras la firma del contrato y con carácter previo a la retirada de los materiales existentes en el depósito municipal, el contratista, deberá satisfacer en la entidad colaboradora de su elección, el 70% importe del contrato, tras lo cual el Ayuntamiento emitirá la correspondiente factura. El resto del importe, será abonado por parte del contratista tras la correspondiente liquidación en función del pesaje final de los residuos metálicos procedentes de los almacenes municipales. Dicho abono deberá realizarse en cualquier caso previamente a la finalización del plazo de ejecución del contrato.
23.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA Kontratua iraungi egingo da betetzen edo suntsiarazten denean. Ondorio horietarako, plegu honetan jasotakoaz	**23.- RESOLUCIÓN CONTRACTUAL** El contrato se extinguirá por cumplimiento o resolución. A estos efectos será de aplicación,

gain, aplikatzekoak diren Kode Zibila eta zuzenbide pribatuko gainerako xedapenak aplikatuko dira. Kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartuko da prezioa ez ordaintzea, agiri honetan ezarritako epe eta moduan. Suntsiarazteko kausen aplikazioa, horien ondorioak, dagokion prozedura eta kalte-galerengatiko kalte-ordaina zuzenbide pribatuko xedapenei egokituko zaizkie, plegu honetan ezarritako salbuespenekin.	además de lo contenido en el presente pliego, el Código Civil y demás disposiciones de derecho privado que sean de aplicación. Se considerará causa de resolución del contrato la falta de pago del precio, en los plazos y forma establecidos en el presente pliego. La aplicación de las causas de resolución, sus efectos, así como el procedimiento correspondiente y la indemnización por daños y perjuicios que proceda, se ajustarán a las disposiciones de derecho privado, de aplicación con las salvedades establecidas en este pliego.
24.- GARDENTASUNA Gardentasunari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, udalak kontratu honetan sortutako informazio guztia argitaratu ahal izango du, edo eskatzen duenaren esku jarri, enpresa lizitatzaileek emandako informazio teknikoa izan ezik, informazio hori sekretu komertzialak estaltzen baitu. Udalak kontratua gauzatzeko edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari kontratuaren xedeari eta hura gauzatzeko inguruabarrei buruzko edozein informazio, baldin eta informazio hori herritarrentzat interesgarria bada. Informazio hori formatu egokian eta gehienez astebeteko epean eman beharko du kontratistak, salbu eta, bere bolumena edo konplexutasuna dela-eta, epe hori luzatzea justifikatzen bada. Betebehar horrek kontratuaren betebehar nagusiak amaitu ondorengo 2 urteetan iraungo du.	**24.- TRANSPARENCIA** En virtud de lo dispuesto en la Ley de Transparencia, el Ayuntamiento podrá publicar o poner a disposición de quien lo solicite toda la información generada durante el presente contrato, con la única excepción de la información técnica aportada por las empresas licitadoras que quede cubierta por el secreto comercial. El Ayuntamiento podrá solicitar a la persona contratista, en cualquier momento de la ejecución del contrato, cualquier información relativa al objeto del contrato y las circunstancias de su ejecución cuando ésta sea de interés para los ciudadanos, debiendo estas facilitarla en un formato apropiado y en el plazo máximo de una semana, salvo que por su volumen o complejidad se justificara la ampliación de este plazo. Esta obligación subsistirá durante los 2 años posteriores a la finalización de las obligaciones principales del contrato.
25.- JURISDIKZIO ESKUDUNA Kontratu hau pribatua da, eta, beraz, lizitatzaileak eta kontratu honen esleipenduna, legokiekeen beste edozein foruri berariaz uko eginda, herri honetan eskumena duten jurisdikzio zibileko auzitegien mende geratzen	**25.- JURISDICCIÓN COMPETENTE** El presente contrato es de carácter privado, lo que determina que tanto los licitadores como el adjudicatario del presente contrato, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que pudiera

dira. Hala ere, egintza juridiko bereizgarritzat hartzen dira kontratua prestatzearekin eta esleitzearekin lotuta ematen direnak, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira.	corresponderles, quedan sujetos a los tribunales del orden jurisdiccional civil competentes en esta población. No obstante, se consideran actos jurídicos separables los que se dicten en relación con la preparación y adjudicación del contrato y en consecuencia podrán ser impugnados ante la jurisdicción contencioso-administrativa.
26.- ARAUBIDE JURIDIKOA Agiri honek besterentze-kontratua arautzen du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) aplikazio osotik espresuki kanpo utzitako negozio juridikoa, 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haren arau berezien bidez arautzen da, eta lege horren printzipioak aplikatzen dira sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko. Araudi berezia, lehenik eta behin, lege hauetan jasotako oinarrizko araudiak osatzen du: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea (aurrerantzean, APKL), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua. Egon daitezkeen erantzukizun penalei dagokienez, Zigor Kodearen 262. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Artikulu horrek lizitazio publikoetan prezioa aldatzera bideratutako delitu-jokabideak tipifikatzen ditu.	**26.- RÉGIMEN JURÍDICO** El presente pliego regula el contrato de enajenación, negocio jurídico excluido expresamente de la aplicación íntegra de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del sector Público, (en adelante LCSP) conforme a lo dispuesto en su artículo 9.2, regulándose por sus normas especiales, aplicándose los principios de la citada ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse. Su normativa especial la constituye en primer lugar la normativa básica contenida en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre del Patrimonio de las Administraciones Públicas (en adelante LPAP), la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local y el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales. En cuanto a las posibles responsabilidades penales se estará a lo dispuesto en el artículo 262 del Código Penal que tipifica las conductas delictivas tendentes a alterar el precio en las licitaciones públicas.
I ERANSKINA **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA** ..... jaunak/andreak,	**ANEXO I** **MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE** D/Dª. ……,

Beasaingo Udala

……. IFZ zk. duenak, bere izenean edo ……. ordezkatuz egoitza fiskala edo egoitza soziala ……..-(e)n,..... kalea,..... zenbakia, ……. telefonoa,……. faxa, …….. helbide elektronikoa, ……identifikazio fiskal kodearekin (izango balu) (ABEEan aurkeztuz gero, ABEE horretan parte hartuko duten enpresa guztien datuak bete beharko dituzte, honako hauek adierazita: enpresa bakoitzaren ordezkaria, enpresa bakoitzak ABEEan duen partaidetza-ehunekoa, eta ABEEaren ordezkaria, SPKLren 140.1.e), ……. esleipenerako aurkeztutako proposamenari dagokionez.	con NIF nº ....., en su propio nombre o en representación de ……., con domicilio fiscal o sede social en ……., c/ ……., n.º ….., Teléfono ……., Fax ……., Email ....., con Código de Identificación Fiscal n.º ……., (si lo tuviere), (para el caso de presentarse en UTE, deberán cumplimentar los datos de todas las empresas que participarán en dicha UTE, indicando el representante de cada una de las empresas, el porcentaje de participación de cada una de ellas en la UTE, así como el representante de la misma, de acuerdo con el art. 140.1.e) de la LCSP), en relación con la proposición presentada para la licitación de.....
Adierazten dut:	**Declaro**:
Lehenengoa.- Eskaintza aurkezten duen enpresaren legezko ordezkaritza dut (pertsona juridikoen kasuan).	**Primero.-** Que ostento la representación legal de la empresa que presenta la oferta (en caso de personas jurídicas).
Bigarrena.- Ordezkatzen dudan enpresak jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa eta kontratua gauzatzeko beharrezko lanbide-gaikuntza dituela, eta enpresaren helburu sozialak kontratuaren xede den jarduera hartzen duela, sozietatearen estatutuetan jasotakoaren arabera. Estatutu horiek behar bezala inskribatuta daude dagozkien erregistroetan.	**Segundo.-** Que dispongo o que la empresa a la que represento dispone, de capacidad de obrar y jurídica y de la habilitación profesional necesaria para concertar la ejecución del contrato y que el objeto social de la empresa comprende la actividad objeto del mismo, de acuerdo con lo recogido en sus estatutos sociales, los cuales se hallan correctamente inscritos en los Registros correspondientes.
Hirugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako ondorioetarako, honako hau da ordezkatzen dudan enpresak kontratazio-espediente honen ondoriozko jakinarazpen eta komunikazio guztiak jasotzeko emandako helbide elektronikoa:	**Tercero.-** Que, a los efectos previstos en la Disposición Adicional Decimoquinta de la Ley de Contratos del Sector Público, la dirección de correo electrónico habilitada por la empresa a la que represento para recibir todas las notificaciones y comunicaciones que deriven del presente expediente de contratación es la siguiente:

- E.mail:.....	- E.mail: .....
Laugarrena.- SPKLren 71. artikuluan jasotako kontratatzeko debekuaren inguruabarretako batean ere ez dagoela, eta SPKLren 140. artikuluan Castellóko Udalarekin kontratatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta esleipen-proposamena bere eskaintzan egiten bada, kontratua esleitu aurretik kontratazio-organoaren aurrean egiaztatuko duela agiri honetan eskatutako dokumentuen edukitza eta balioa. **Bosgarrena.-** Enpresa lotuak.- SPKLren 149. artikuluan ezarritakoa betez, honako hau deklaratzen dut:	**Cuarto.-** Que no está incurso en ninguna de las circunstancias de prohibición de contratar recogidas en el artículo 71 de la LCSP y que cumple las condiciones establecidas en el artículo 140 de la LCSP para contratar con el Ayuntamiento de Castellón de la Plana y que en el caso de que la propuesta de adjudicación recaiga en su oferta, acreditará ante el Órgano de contratación, previamente a la adjudicación del contrato, la posesión y validez de los documentos exigidos en el presente pliego. **Quinto.-** Empresas vinculadas.- En cumplimiento de lo establecido del artículo 149 de la LCSP declaro:
A aukera: ez dago enpresa eskaintzailearekin lotutako enpresarik. B aukera: kontratazio honen xede den jarduera-sektorearen barruan, enpresa eskaintzaileari lotutako enpresak dira erantsitako zerrendan jasotakoak, eta ez dago beste enpresarik xedapen horretan adierazitako baldintzak betetzen dituenik.	Opción A: Que no existen empresas vinculadas con la empresa oferente. Opción B: Que son empresas vinculadas con la empresa oferente, dentro del sector de actividad objeto de la presente contratación, las incluidas en la relación adjunta, sin que exista ninguna otra empresa en la que concurran los requisitos señalados en el citado precepto.
Seigarrena.- Isilpeko agiriak.- Aitortzen dut isilpekotzat jo behar direla nire eskaintzari erantsitako dokumentu hauek: (zehaztu dokumentuak eta, hala badagokio, bakoitzari esleitutako orrialdeen zenbakiak). **Zazpigarrena.-** Ziurtagiriak aurkeztea.- □ Esleipendun proposatu ondoren, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditudala egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztuko ditut.	**Sexto.-** Documentos confidenciales.- Declaro que deben tenerse por confidenciales los siguientes documentos incorporados a mi oferta: (detallar los documentos así como la numeración de páginas asignada a cada uno de ellos, en su caso). **Séptimo.-** Presentación de Certificados.- □ Que aportaré los certificados acreditativos de estar al corriente en el cumplimiento de mis obligaciones tributarias y con la Seguridad Social una vez resulte propuesto adjudicatario.

Beasaingo Udala

Zortzigarrena.- Atzerriko enpresen kasuan, Espainiako legediari men egiten diotela adieraztea (hala badagokio). Adierazten dut ordezkatzen dudan enpresa Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta uko egiten diola, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari. **Bederatzigarrena.-** (Bete, hala badagokio). Lizitaziora aldi baterako elkarte baten barruan aurkeztu nahi dela, eta kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen duela. Enpresa osatuko duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta enpresa horietako bakoitzaren partaidetza honako hauek dira: (data eta lizitatzailearen sinadura)	Octavo.- Para las empresas extranjeras, declaración de sometimiento a la legislación española (si procede). Declaro que la empresa que represento se somete a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitador. Noveno.- (Cumplimentar si procede). Que se pretende concurrir a la licitación integrados en una unión temporal, y asume el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. Los nombres y circunstancias de las empresas que la constituirán y la participación de cada una de ellas son los siguientes: ….. (fecha y firma del licitador)

Beasaingo Udala

II. ERANSKINA. Proposamen ekonomikoaren eredua, B artxibo elektronikoan sartzeko

..... jaunak/andreak (Helbidea: .... NAN:…….....Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa: ……) erabateko ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmenarekin, bere izenean edo ..... (r)en ordezkari gisa (IFK: ..... Helbidea: .....),

Euskadiko Kontratazioaren Plataforman UDAL BILTEGIAN DAUDEN HAINBAT MATERIAL ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEA, HIRI-HONDAKIN SOLIDO GISA TRATATZEKO, deitutako lizitazioaren berri jaso ondoren, honako hau aitortzen dut:

1.) Honako unitate-prezio hauek eskaintzen ditudala hondakin metalikoaren tipologia bakoitzari dagokionez (taulan bete beharrekoa) guztira ..... €, eta..... €BEZaren % 21 suposatzen duelarik.

Burdina/Altzairua (orokorra)	11,59TN	…….€/TN
Galdaketa	31,55TN	…….€/TN
Altzairu herdoilgaitza (AISI 304)	0,2TN	…….€/TN
Aluminioa	0,3 TN	…….€/TN

2.) Irakurri ditut baldintza teknikoen agiria, administrazio-baldintza partikularren agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-osorik.

ANEXO II. Modelo de proposición económica a incluir en el archivo electrónico B

D./Dña..... .. con domicilio en..... CP....., DNI nº....., Teléfono..... Dirección de correo electrónico…… en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de..... CIF.....con domicilio en ..... Tras conocer la licitación convocada en la Plataforma de Contratación de Euskadi la licitación para ENAJENACIÓN MEDIANTE SUBASTA DE DIVERSOS MATERIALES QUE SE ENCUENTRAN EN EL ALMACEN MUNICIPAL PARA SU PARA SU ACHATARRAMIENTO Y TRATAMIENTO COMO RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS, declaro:

1º) Que ofrezco los siguientes precios unitarios respecto a cada tipología de residuo metálico (a completar según la tabla), resultando un precio total de …….. €, además de……€ en concepto de 21% de IVA.

Hierro / Acero (general)	11,59TN	……..€/TN
Fundición	31,55TN	……..€/TN
Acero Inoxidable (AISI 304)	0,2TN	……..€/TN
Aluminio	0,3 TN	…….€/TN

2º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

Beasaingo Udala

3.) Ordezkatzen dudan enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta eginbehar guztiak betetzen ditu.	3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.
4.) Eskaintzan kontuan hartu ditugu, batetik, zerga-sistemaren, generoarekiko berdintasuna, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Hala, hori guztia beteko dudala hitzematen dut.	4º) Manifiesto que, en la oferta se han tenido en cuenta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, igualdad de género, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y que me obligo al cumplimiento de todo ello.
.....n, 20.... (e)ko ..... ren ..... (e)an. Sinadura	En....., a.… de….....de 20..... Firma